



ASTEBURURAKO PILOTAK PREST DAUDE

Eskualdeetako pilotariek, profesionalak eta afizionatuek, partida ugari jokatuko dituzte banaka nahiz binaka >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-02-19

VIII. URTEA 1.932. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Jaiak eta aldarrikapenak bat egingo dute biharko Egunkaria Egunean

TOLOSA Plaza Berrian 18:00etan hasiko den jaialdira deitu ditu herritarrak Egunkariaren sostengurako taldeak

EGITARAU Besteak beste, bertsolariak, erraldoi eta buruhandiak, dantza taldeak eta musikariak egongo dira 2



HITZA

MAITENA MONROY BIZKAIKO EMAKUMEEN ASANBLADAKO KIDEA

«Tratu txar asko psikologikoak edota hitzezko abusuak dira eta ez dira horrela onartzen»

ZIZURKIL Udalak emakumeei zuzenduriko autodefentsa ikastaroa antolatu du martxoaren 20ean; izena emateko epea zabalik dago 4



Herriko plazan dagoena bezala, errotuluak euskaraz egon behar dute. I. GARCIA

Herritarrei zerbitzua euskaraz ematea da erabilera planaren helburu nagusia

AMEZKETA UEMAK diseinatu duen euskararen barne erabilera plana abian jarri du Udalak 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01


(Asteegunetan 09:30-20:30 / Lanuribategan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidaliz izen-emate orria:
Araba etorri bidea 3 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31860 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aberriaren 1. leku 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregistratu dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikustiko, zuzentzeko, ezaztatzeko eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala ere, gure helburuak dira: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorri bidea 3 behean • 20400 Tolosa, edo harpidetza ghitza@hitza.info

'Egunkaria'-ren itxieraren zazpigarren urteurrenean, jaia eta aldarrikapena

'Egunkaria auzia' »

'Egunkaria'-ren aldeko jaialdia izango da, bihar, 18:00etan hasita, Tolosako Plaza Berrian.

INIGO TERRADILLOS

Zazpi urte beteko dira bihar Guardia Zibilak, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalak epai-learen aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik. Urteurrenaren harira hainbat ekintza burutuko dituzte Euskal Herri osoan, batetik, kazetaren itxiera salatze-ko, eta bestetik, epaiaren zain dauden *Egunkaria*-ren aurkako epai-eketak bost auzipetuen absolutzioa eskatu eta babesa eta elkartasuna adierazteko. Eskualdeari dagokionez, bihar arratsaldean izango da *Egunkaria* Eguna Tolosako Plaza Berrian, eta dantza, musika eta bertsoez osaturiko emanaldiaz gozatzeko aukera izango da.

Dantza, musika, kantuak...

Tokian tokiko Egunkariaren sostengurako taldeek antolatuta egingo dira bihar herriz herri *Egunkaria*-ren aldeko ekimenak. Jai giroa eta aldarrikapena batzeko ekitaldiak antolatu dituzte, pintxo dastazeak, ekitaldi kulturalak, elkarretaratzeak eta abarrek, eta auzipetuen absolutzio eskaera guztiaren izango da, hitzetik hortzera. Hala izango da Tolosako jaialdiaren kasuan ere.

Bihar, 18:00etan hasiko da ekimena Plaza Berrian. Hiru ordu in-



Pasa den urteko azaroan egin zuten *Egunkaria*-ren aldeko jaialdia Donostiako Kursaalari. A. CANELLADA / ARGAZKI PRESS

guruko iraupena aurreikusten dute antolatzaileak, eta musika, mugimendua, dantza, bertsoak, zer abestua... izango da, denetarik, beraz. Hau guztia, Egunkariaren sostengurako taldeak esan bezala, «Tolosa eta Tolosaldeko hainbat taldeen ezinbesteko laguntzarekin izan da posible, eskatutako guztiak erantzun ezin hobe eman baitute, batzuentzat tokirik ez izateraino».

Erraldoien eta buruhandien konpartsa Plaza Berrian sartzearekin batera hasiko da festa. Une horretatik aurrera Plaza Berriko kioskoan nahiz plazan bertan, Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi bertsolariak ariko dira, O+hatz taldeko Iñaki Plaza eta Ion Garmendiaren trikitixa eta txalaparta saioa izango da, Udaberri eta Alurr dantza taldeen emanaldia, Konpenezinak koadrila, Bonberenea txaranga eta Mulamena perkusio taldearen doinuak,

Izaro Saizar eta Elene Arandia Euskal Telebistako *Bi Gira* saioaren irabazleen kantaldia eta Tolosa Kantari ekimeneko hainbat kiderekin batera gerturatzen den orok kantatu ahaliko du. Martxelo Otamendi tolosarra da bost auzipetuetako bat, eta berak ere hartuko du parte jaialdian.

'Egunkaria'-ren itxiera salatu eta adierazpen askatasuna aldarrikatzea izango da helburua

Bestalde, Molatu produkzioen laguntzarekin jarri ahaliko da sonorizazioa eta argiztapena jaialdian. Hala, talde antolatzaileak, *Egunkaria* egin zutenen eta auzipetuen izenean, eskerrak eman nahi dizkie jaialdian parte hartuko duten guztiak, «laguntzeko agertu duten prestutasunagatik, eta parte hartu nahi eta ezinean geratu diren guztiak ere». Halaber, herritar guztiak gonbidatu dituzte jaialdi berezi honetan parte hartu eta bide batez auzipetuei elkartasuna adieraztera.

Ekitaldiak Andoainen eta beste hainbat herritan

2003ko otsailaren 20an Guardia Zibilak Martin Ugalde kultur parkea hartu zuen eta euskarazko kazeta itxi zuen. Parkearen kanpoaldea operazioaren kontra protestan bildu ziren herritarrez bete zen segituan. Zazpi urte geroago leku berean bilduko dira herritarrak

» EGITARAUA

- **18:00.** Erraldoien eta buruhandien konpartsa.
- **18:15.** Bertsolariak: Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi.
- **18:30.** O+hatz taldeko Iñaki Plaza eta Ion Garmendiaren emanaldia.
- **18:45.** Erraldoien eta buruhandien irteera.
- **19:00.** Udaberri Dantza Taldearen emanaldia.
- **19:15.** Konpenezinak Koadrila-
ren saioa.

itxiera salatzeo eta adierazpen askatasuna aldarrikatzeo. Bihar 12:00etan hasiko da ekitaldia Andoaingo kultur parkean.

Epaiketaren atarian hasi eta orain arte, astero-astero elkarretaratzeak egin dituzte, hainbat sektoretako ordezkariak deituta. Elkarretaratze horietan parte hartu dutenak bilduko dira bihar ere Andoainen. Han izango dira, besteak beste, Aitzpea Goenaga, Uxue Alberdi, Mikel Astarloza, Xabier Mendiguren, Igor Zalakain, Ramon Labaien eta Maddalen Iriarte. Ekarpentak egingo dituzte nork bere erara, eta auzipetuetako bategere hartuko du hitza.

Bestalde, Andoainen eta Tolosan bezala, Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere antolatu dituzte *Egunkaria*-ren aldeko ekitaldiak, Bilbo, Donostia, Errenteria, Andoain, Eibar, Hernani edota Zarautzen, esaterako.

Gizartearen babesa

Euskarazko kazeta itxi zutenetik ekintza ugari egin dituzte itxiera salatu eta auzipetuei babesa adierazteko, eta herritarren aldetik esperotako erantzuna jaso dute. Handienak tamainari dagokionez, *Egunkaria* itxi ostean Donostian egin zuten manifestazioa eta Bilbon 2009ko abenduan eginikoa izan dira, milaka eta milaka lagun parte-hartzearekin. Norbanakoen eskutik nahiz elkarte eta erakundeek bultzaturik burutu dira ekintzak, eta Euskal Herrian ez ezik gure mugetatik at ere bai.

- **19:30.** Izaro Saizar eta Elene Arandiaren kantaldia.
- **19:45.** Bonberenea txaranga.
- **20:00.** Alurr Dantza Taldearen emanaldia.
- **20:15.** Mulambo Perkusio Taldea.
- **20:30.** Bertsolariak: Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi.
- **20:40.** Martxelo Otamendiren hitzaldia.
- **20:45.** Tolosa Kantari ekimeneko hainbat kide.

K Kirol jarduera

Gaur, ostirala

Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, Gipuzkoako ligako 2. mailako partida, 20:45ean: Laskorain - Allerru.

Es kubalioa

■ Usabalgo beheko kantxan, seniorrak, 20:15ean: Tolosa - Groseko.

Zesta punta

■ Beotibar pilotalekuan, infantil mailakoen partidak, 19:30ean: Beotibar 3 - Zumaia 4; Beotibar 2 - Zumaia 5; Beotibar 1 - Zumaia 6.

Bihar, larunbata

Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, nazional mailako partida, 18:00etan: Laskorain - Clinica Dental Aldaz.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, infantil mutilen partida, 09:00etan: Ipar Take - Zubiri.
■ Usabalgo goiko kantxan, kadete mutilak, 10:30ean: Aurrera Take - Zarautz.
■ Usabalgo goiko kantxan, infantil emakumezkoak, 10:30ean: Ekhi Take - Ipar Project ISB.
■ Usabalgo goiko kantxan, kadete emakumezkoak, 12:00etan: Take Aralar - Easo Ostadar.
■ Usabalgo beheko kantxan, junior emakumezkoak, 16:00etan: Aralar Take - Easo Antxeta.

Es kubalioa

■ Usabalgo goiko kantxan, kadeteak, 10:30ean: Tolosa - Legazpi.
■ Usabalgo goiko kantxan, seniorrak, 12:00etan: Tolosa - Arrasate.
■ Usabalgo beheko kantxan, infantil mailakoen partida, 12:00etan: Tolosa B - Amenabar C.
■ Usabalgo goiko kantxan, jubenilak, 16:00etan: Tolosa - Elgoibar.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil txiki, 09:30ean: Tolosa CF - Ordizia.
■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezko kadeteak F11, 11:00etan: Tolosa CF - Beasain.
■ Berazubiko zelaian, infantilen ohorezko maila, 11:30ean: Tolosa CF - Euskalduna.
■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezko kadeteak F8, 12:30ean: Tolosa CF - Ordizia.
■ Usabalgo futbol zelaian, preferente mailako partida, 15:30ean: Tolosa CF - Urnieta.
■ Usabalgo futbol zelaian, Lurraldekako 1. mailako partida, 17:30ean: Amarotz - Lengokoak.

Etzi, igandea

Zesta punta

■ Uzturpen, Euskal Herriko ligako ohorezko maila, 11:00etan: Beotibar 1 - Gasteiz Jai Alai.

Astlehena

Pilota

■ Beotibarren, Binakako Txapelketako partida, 16:30ean: Berasaluzeko VIII / Begino - Xala / Zubieta.

Egunkaria libre!

Otsailak 20
Tolosan
Plaza Berrian

egitea

- 18:00. Erraldoien eta buruhandien konpartsa
- 18:15. Bertsolariak: Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi
- 18:30. O+hatz taldea
- 18:45. Erraldoien eta buruhandien irteera
- 19:00. Udaberri Dantza Taldea
- 19:15. Konpenezinak Koadrila
- 19:30. Izaro Saizar eta Elene Arandia
- 19:45. Bonberenea txaranga
- 20:00. Alurr Dantza Taldea
- 20:15. Mulambo Perkusio Taldea
- 20:30. Bertsolariak: Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi
- 20:40. Martxelo Otamendi
- 20:45. Tolosa kantari ekimeneko hainbat kide

Organizatzailea: Molatu Produkzioak

Martxoaren 20ean, Zizurkilgo Udalak antolatuta emakumeei zuzenduriko autodefentsa ikastaro trinkoa izango da. Izena emateko azken eguna otsailaren 26a izango da eta Aurrera Plazako Udal Bulegoetan eman beharko da. Ikastaroa irekia da eta 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era izango da. Kostua 35 eurokoa da baina eguneko bazkaria barnean dago.

«Bizitzan inoiz ezingo da onartu min, golpe, oihu, irain, bortxaketa edo hilketarik»

MAITENA MONROY » Bizkaiko Emakumeen Asanbladako kidea

Ikastaroa » Alderdi fisiko psikologikoa eta kulturala landuko dituzte. Adin guztietako emakumeei zuzendua dago.

ENERITZ MAIZ

Maitena Monroy bilbotarra izango da Zizurkilgo emakumeei zuzendurik egingo den autodefentsa ikastaro trinkoko irakaslea. Esperimentzia handiko emakumea da eta jada 22 urte daramatza mundu honetan lanean.

Emakumeei bakarrik zuzenduriko ikastaroa emango duzu. Oraindik behar handia dago?

Erantzuna baiezko borobila da. Gaur egun oraindik, emakumeen aurkakoa den biolentzia dago eta beraz, mota honetako ikastaroak beharrezkoak dira. Gainera biolentzia hori ez da fisikoa bakarrik eta azken urteotan, harreman afektiboetako biolentzia kalera-ze lortu badugu ere, beste aldetik ordea, beste batzuk ezkutatu egin dira biolentzia sinboliko eta kultur transmisioetik hasiz. Hortik, emakumeei beldurra izaten erakutsi digute, defentsarik gabeak garelara, ahulak, gu geu bakarrik ezin garelara babestu eta gizonezko baten figura behar dugula ondoan... sinestorazi digute. Hau serietan, filmetan, ipuinetan ikusten dugu. Printzeak, mutil onak, salbatzaileak beti gizonezkoak dira eta inoiz ez neskek. Ikastaroan baliabide eta tresna fisikoak bakarrik ez ditugu erakusten baita bitarteko eta tresna emozionalak ere. Gorputzaren bidez ere seguruagoak izaten erakusten



HITZA

dugu eta gorputzaren bidez gauza asko dago ikasteko. **Zer erakusten duzue zehazki ikastaro trinkoan?** Ikastaroak biolentzia mota baten aurrean ez ditu soilik tresna fisikoak erakusten. Emakumeok jasaten

Tratu txar asko psikologikoak edota hitzezko abusuak dira eta ez dira horrela onartzen

ditugun biolentzia mota guztiak aztertzen ditugu eta hortik aurrera, biolentzia zergatik gertatzen den jakiten saiatzen gara eta tresnen bidez hornitu ahal izatea da helburua. Eta hau ez da bakarrik aurre egiteko baizik eta gehien interesatzen zaigunerako, hau da, saihesteko.

Alor ezberdinak lantzen dituzue.

Bi alor dira baina, batetik bestera pasatzen gara. Alde batetik fisikoa dago eta bertan oso simpleak diren bitartekoak erakusten ditugu: atzetik jarraitzen badigute zer egin, hitzezko erasoak badira, eraso psikologikoak edo sexualak diren, tratu txarrak jasaten baditugu... guzti horiek emakumeen aurkako erasoak dira eta hauei erantzunak ematen saiatzen gara eta egoera horien aurrean zer egin jakiteko baliabideak ematen ditugu. Beste atala, psikologikoa edota teorikoa litzateke. Tratu txar asko psikologikoak edota hitzezko abusuak dira eta sarritan ez ditugu biolentzia kasu bezala kontsideratzen eta horrela dira. Gainera emakumeon autoestimua eta segurtasuna kaltetzen dituzte. Eta transmisio kulturala ere kontuan hartzen

dugu. Biolentzia sinbolikoa, sozio-kulturalki jasotzen ditugun baloreetatik dator kigu eta hor emakumeok defentsarik gabekoak bezala eta erasotzaileen aurrean ez ezin dugula egin bezala kokatzen gara. Beste puntu garrantzitsuetako bat

Taberna, garraio eta leku publikoetan ematen diren abusu sexualak ere biolentzia dira

intentsitate baxua duen biolentzia da eta ez da horrela ikusten. **Zeri deitzen diozu intentsitate baxuko biolentzia?** Adibidez, taberna edota diskoteka batean ipurdia ukitzea, garraio publikoetan ematen diren abusu sexualak, leku publikoetan nire gor-

putza abusatzen saiatzea... Hauek ere biolentzia direla identifikatzea oso garrantzitsua da eta segurtasun falta sentiarazten digute. Erasotzaileak saiakera horietan dominatu egin nahi du eta ukatu egiten du horrela denik. Gainera sarri askotan, inguruak ere onartu eta legeztau egiten ditu jokabide horiek eta ez dago honelako erasoak justifikatzeko aitzakiarik. Eta hori ere azaleratzen saiatzen gara. Ez dago aitzakiarik, ez alkoholaren errurik,

Bizitza honetan gizonezkoek beldurrik gabe nahi duten guztia egiteko eskubidea dute

ez emakumearen jantzeko eta izateko eraren errurik... zeren bizitza honetan gizonezkoek, beldurrik gabe, nahi duten guztia egiteko eskubidea dute eta gaur egun oraindik, emakumeen bortxaketak justifikatzen dituenik bada.

Emakumeek eskertzen dituzte honelako ikastaroak?

22 urte daramatzen mundu honetan eta 8.000 emakumetik gora pasa dira eta benetan, ikastaroa egiten duten emakumeek, gehiago ikasten jarraitu nahi izaten dute. Batez ere orain arte katalogatu gabe zeuden egoerak ezagutzeko balio izan dielako eta era berean aurre egiteko hain simpleak diren baliabideak ikasi dituztelako. **Zer da emakume batek jakin behar duen oinarria?** Lehenik bere burua maitatzen eta bigarrenik jakitun izan eta garbi eduki behar du, edozein une eta egoeratan geure burua defendatzeko eskubidea dugula. Bestetik, inongo momentutan ezingo da onartu min, oihu, golpe, irain, bortxaketa edota hilketarik. Emakumeen aurkako inongo biolentziarik ezin da onartu eta, gainera, funtsezko elementua gizonezkoek horretarako eskubiderik ez dutela garbi izatea izango da.

tolosaldeko.ohitza.iragarkilaburrak.com

Atzeden arribak 500€ eta postako nagariak 50€ arribak dira.
BACARRAK 247 230 | www.tolosaldeko.ohitza.iragarkilaburrak.com | 943-16 20 48 telefono arribak

Lana iragarkia

LAN EKARAK

SABERDARAK

Taldea Constan lana egingo lukeen emakume zuzendakaria da. Esperimentzia handia dut ostalaritza, haur zainketa, mahi garbiketa, Harremanetarako telefono zembaki: 615-00 68 56.

KANPOKOAK GUREAN

Lana iragarkia

LAN EKARAK

BIKASUNTZA

Lanare-oria. Foto-hera eskola partikularak ematen ditu. Argazki-tratamendu eta keta digitala lantzen ditu. Espiritualtasunaz informaketa dituen eskola ematen. Harremanetarako delu telefono zembaki: 625-73-40 79.

SABERDARAK

Lanare-oria. Muzika profesionala. Clubea eta beste hainbat lantzerak, gorputza berrosota-

lanean hartuta. Bilan-ko emak, artifikazio ar-
zoak, tentio musikala-
rak... arribak. Erre-
kuz ingurberian edo du
arribak izateko pres. In-
formazio gehiagorako
delu: 617-58-40 95.

Leku hau
zuzte
iragarkiare
zain dago

tolosaldeko.ohitza.iragarkilaburrak.com

euskarazko iragarkilaburren ataria

Interneten
iragarkia dute

Paperean
estekarekin atal honetan dute
delu. Iragarkia orain ere berriz iragarkia
postako paperekin edo berriz iragarkia

Iragarkien prezioak:
Rata bat 5€ / bi rata 9€ / hiru rata 12€ / lau rata 17€

Ikolan lanaldi

ALDIBATEKO LANA

Bepena: 7 (guztira konpartzeak) - BEBASAN

943-16 20 48

Bazterreko lan iragarkia:

www.ikolanaldi.com



Bihar, hilak 20, Asteasun Jon Rekondo leitzarria ariko da aizkoran. NAIARA GARZIA

Rekondok bihar lor dezake Asteasun Urrezko Aizkolarien finalerako txartela

Leitza » Aizkolaria leitzarrik Atutxa II. arekin osatuko du bikotea; aurrean Olasagasti eta Etxebeste edukiko dituzte.

ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren finalerdiak jokatu dira asteburuan. Lau bikoteen arteko lehiak amaizten direnean, finalean egongo diren aizkolarien izenak jakingo dira.

Asteasun Olasagasti eta Etxebeste aurkeztuko dira alde batetik, bestetik berriz, Atutxa II.a eta Jon Rekondo leitzarria. Herri kirol jaialdia 16:30ean hasiko da.

Asteasun bigarren norgehiagoka bat ikusteko aukera ere egongo

da, kasu honetan Zilarrezko Mailakoa. Llanos eta Kintana aizkolariek Dorronsororen eta Irazabalen aurka jokatuko dute.

Bigarren finalerdia

Urrezko Aizkolarien Txapelketako bigarren finalerdia etzi jokatuko da Elgoibarren. Larretxea aita semeek Nazabal-Jauregiren aurka jokatuko dute.

Bi txapelketan finalak hilaren 27an jokatuko dira. Zilarrezko Mailan, Olano-Saralegi leitzarrik bertan egongo dira, iragan larunbatean finalerako txartela lortu baitzuten Amazabal pilotalekuan, Kañamarens osaba-ilobak gainditu ostean.

Hirugarren leitzarria bertan egongo den edo ez, bihar argituko da Asteasun.

Laburrak

Odol emailen deialdia gaurko, osasun zentroan

ALEGIA • Odola emateko aukera berri bat izango da, gaur, 19:00etatik 21:00etara, Alegiako osasun zentroan.

Wifi-aren inguruko hitzaldia Kultur Etxean

ALEGIA • Ikastetxe guztietan LHko 5. mailan Eusko Jaurilaritzak *Escola 2.0* proiektua martxan jartzera doa. Hori dela eta, teknologia berrien eta interneten erabileraren gaineko informazioa eta eztabaidan sakontzeko asmoz Alegiako Udalak bi hitzaldi antolatu ditu Kultur Etxean. Lehenengoa *Wifi-a eskoletan... teknologia z kutsakorra?* izena du eta Asier Arregik emango du astelehenean, hilak 22, 18:00etan hasita.

Emakumearen Egunaren harira, afaria Kultur Etxean

ALEGIA • Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira afaria antolatu dute Alegian martxoaren 6an, larunbata. Kultur Etxean egingo dute afaria eta 21:00etan hasiko da. Afariaren prezioa 25 eurokoa da. Txartelak salgai daude gaurtik aurrera Kultur Etxean bertan eta hauek erosteko azken eguna martxoaren 4a izango da. Afariaren ondoren dantzaldia izango da, Kultur Etxean.

Museo etnografikoaren telefono zenbakia aldatuta

LARRAUL • Museo etnografikoaren telefono zenbakia aldatu egin dute. Museoa kudeatzen duen lantaldetik azaldu dutenez, zenbaki berria 688 80 36 08 da.

70 kanalik onenak, hilean 14 € ordainduta.

Orain, gogatu zinema onenak, zuzeneko futbolak, eure telesail gustukoenez, dokumentalez, haurrentzako kanalez eta askoz gauza gehiagoz, zuk uste baino gutxiago ordainduta.

Beste telebista bat merezi duzu.

euskaltel zuretzat

zuntzOptikoa Deitu **1717** telefono-zenbakira edo zuzer Eusko 2.0ren sartzokira.

TB Digitala 10 hilean 14,21 €-tik aurrera Zuntz 14,21 €-ko Daxa dabilen berrantzerari eta hilean 11 €-tik aurrera Zuntz 14,21 €-ko Daxa guren berrantzerari. TB Digitala 10ren ordaintze kutsa: 30 € + 5.000€ diru-konsumu aplikatuko da Zuntz 14,21 €-ko Daxaren edo bertik gutxiagoren kutsan eta TB Digitala 10 zerbitzuaren kutsan, berriz 2 produktuen hornaraztearen kutsa gero. Deskodetutakoak eta dago sartuta. Zeharkako eragileak 19,21 € + 11 €-tik gainera.

Euskararen barne erabilera plana onartu eta abian jarri du Udalak

Amezketak » UEMAK diseinatu du plana eta erakunde horretatik azaltzen denez, ekimenaren helburu nagusia «herritarrei zerbitzua euskaraz ematea» da.

ERREDAKZIOA

Amezketako Udalak euskararen barne erabilera plana onartu zuen osoko bilkura batean eta abian jarri du. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) diseinatu du plana eta horren helburua Udalak euskara nola eta zenbat erabili duen arautzea da, beti ere, UEMAREN irizpideen baitan.

Udalak UEMAN sartzeko eskara 2008an egin zuen. Handik aste batzuetara UEMA lanean hasi zen Udalarekin eta lehentasun handiena barne erabilera plana diseinatzea izan zen. Mankomunitatearen irizpidearen arabera, hiru helburu bete beharko lituzke Udalak. Alde batetik, herritarrentzako zerbitzu hizkuntza euskara izatea. Bestetik, administrazioen arteko hizkuntza euskara izatea. Eta azkenik, barne harremanetako hizkuntza euskara izatea. Hirugarren helburua ia lortuta dagoela azaldu dute UEMATik.

Imanol Haro UEMAKo teknikariak azaltzen duenez, «Amezketan lehenengo helburua dagarrantzisuen, hau da, herritarrei zerbitzua euskaraz ematea. Horrek esan nahi du Udalak edo Udalak kontratatutako enpresek zein partikularrek euskaraz eman behar dietela zerbitzua amezketarrei. Horren ondorioz, herritarrentza-



Barne erabilera planaren arabera, enpresek jartzen dituzten errotuluak euskaraz egon behar dute. I. GARCIA



Obretako kartelak ere euskaraz egon behar dute. I. GARCIA

ko ikastaroak, adibidez, euskaraz izan beharko dute».

Orain arte egindakoa

2009an UEMAREN lan ildo nagusia plana diseinatzea izan zen. Horren baitan, diru laguntza bideratu zitzaion Eusko Jaurlaritzari, plana gauzatzeko. Eusko Jaurlaritzak 2009. urtea jarri zion Udalarri plana diseinatu eta osoko bilkuran onartzeko.

UEMATik plana diseinatu ondoren, lana azaldu zieten udal langile eta hautetsiei, nork bere proposamenak egiteko. Horren ondoren, plana onartu zuten osoko bilkuran, Eusko Jaurlaritzak agindutako epea betez.

Amezketak duela hogeitaurte baino gehiagotik onartuta dauka euskararen gaineko ordenantza. Hain justu, 1989ko ekainaren 30ean onartu zuen osoko bilkurak. «Bai-

na urte batzuen ondoren ordenantza betetzeko eta betearazteko gina galduz joan zen», azaldu du Harok. «Hala ere, Amezketako Udalak UEMAN sartu aurretik oso egoera ona zuen, euskararen erabilerrari dagokionez. Hau da, UEMAN egon gabe ere, ehuneko handi batean UEMAREN irizpideak betetzen zituen».

Hori dela-eta, barne erabilera plana abian jartzean, herritarrak oro har «ez du desberdintasun handirik ikusiko» Udalaren eta beren arteko harremanetan. Nolanahi ere, UEMATik azaltzen dutenez aldaketak ekarriko ditu planak.

Aldaketak

Aldaketa horietako bat Udalak egin beharreko kontratazioetan euskararen gaineko betekizunak eskatu eta betearaziko dituela da. Enpresa bat kontratatzen duenean, zenbait eskaera egingo dizkio: Udalaren eta enpresaren arteko harremana euskaraz egitea, herritarrei eskaini beharreko zerbitzua

euskaraz egitea eta errotuluak eta gainerako idatzizko elementuak euskaraz jartzea. «Horrek, praktikan, esan nahi du ikastaroak euskaraz eman beharko direla, obretako kartelak euskaraz jarri beharko dituztela...», dio Harok...

Bigarren aldaketa inprimakien inguruan izango da. Udalean euskarazkoak izango dute lehentasuna. «Hartara, euskaldunei euskarazkoak inprimakia eskainiko diete udal langileek», azaltzen du Harok.

Hirugarren aldaketari dagokionez, Udalaren irudia euskarari lotuta egongo da ezinbestean. «Adibidez, webguneko eduki guztiak euskaraz izan beharko ditu eta Udalak ezer argitaratzen badu euskaraz izan beharko da», zehazten du UEMAKo teknikariak.

Laugarren aldaketa Udalak jasotzen dituen agiriaren inguruan izango da. «Udalak ez du onartuko beste erakunde publikoetatik gaztelania hutsez iristen zaion agiri-rik, eta bueltan bidaliko ditu», dio Harok.

UEMARI eta Udalarri ezinbestekoa iruditzen zaie herritarren parte hartzea. Edozein kezka, proposamen edo salaketa egiteko, herritarrak UEMAKo bulegoarekin harremanetan jar daitezke 943 26 03 72 telefono zenbakian edo gipuzkoa2@uema.org posta elektronikoa.

Beste ekimenak

Euskararen barne erabilera planaz gain, beste ekimen batzuk ere burutu ditu UEMAK Amezketan. Horietako bat merkataritza kanpaina izan da. Bestetik, UEMA zer den eta herriak zer-nola nabaritu duen jakinarazteko aurkezpen publikoa egin zitzaion herritarrei. Horrez gain, UEMAREN Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Osakidetzaren lanpostuen deialdi publikoaren aurkako mozioa onartu zuen Udalak. UEMAK bere albiste berri eman du *Berriraparen* bidez. Azkenik, abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina egin du.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW: FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Hilberria

JOAN ARREGI OLAIZOLA

(‘Gerranzuri’ baserria)



Zure ardi artean emandako maitasuna betirako izango dugu



Zure ilobak, Aimar, Jokin eta Ainhoa

Oharra: Hilberria Azpeitiko Beilatokian. Meza GAUR izango da, 19:30ean, Azpeitiko Soreasuko San Sebastian parrokian.

AZPEITIA
2010eko otsailaren
19a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

Asteburuko pilota partida nagusiak

Tolosaldea eta Leitzaldea » Ohi bezala gure pilotariak lehia ugari jokatuko dituzte ondorengo egunetan, banaka nahiz binaka.

ERREDAKZIOA

Eskuz nahiz paletaz, banaka nahiz binaka edo etxean nahiz kanpoan eskualdeetako pilotariak izerdia franko botako beharko dute asteburu honetan.

Alde batetik profesionalak aurkitzen dira. Hauek Lehen eta Bigarren Mailako Binakako Txapelketako partidak jokatuko dituzte. Bestaldetik, afizionatuak daude. Hauek hainbat txapelketetan hartuko dute parte.

Bengoetxea VI. eta Saralegi

Titin III.a-Pascualek eta Bengoetxea VI.a-Otxandorenak pilotat bereiztu zituzten herenegun La-

brit pilotalekuan, bihar Binakako Txapelketako zazpigarren jardunaldiari dagokion partidua jokatuko. Asegarceko bikotea kanporatuta dago jadanik baina Oinatz Bengoetxeak azaldu duenez: «Gu irabaztera irtengo gara; nahiz eta txapelketatik at izan ahalik eta puntu gehien lortu nahi ditugu».

Gaur Ekaitz Saralegik jokatuko du Donibane Lohitzunen (Lapurdi), 20:00etatik aurrera. Amezketarrak gorengo mailan jokatuko duen bigarren partida izango da, Binakakoari dagokionez. Apraizekin osatuko du bikotea. Aurrean Gonzalez-Laskurain edukiko dituzte Maurice Ravel pilotalekuan.

Bigarren Mailari dagokionez, Mikel Olazabal aresoarrak Gernikan jokatuko du bihar, hilaren 20ean, Arrutirekin batera Diaz-Oteizaren aurka.

Aurrerako pilotariak

Leitzako Pilota Eskolakoez Berria Txapelketako partidak jokatuko dituzte Heranin, gaur, 21:00etatik aurrera. Kadeteetan Anartz Olano-Hernandorenak osatuko dute bikotea. Jubeniletan Jaunarena anaiek eta nagusietan Esain eta Mikel Iriartek. Aurkariak Heraniko bikoteak izango dira.

Nafar Jokoei dagokionez, Amazabalen bihar 4 partida jokatuko dira 10:00etatik aurrera.

Euskal Herriko Ligan bihar eta etzi jokatuko dituzte norgehiagokak leitzarrek. Jon Jaunarenak Amazabalen jokatuko du 11:30ean bihar. Xabier Jaunarena-Hernan-

dorenak berriz, bihar Alegian 12:00etan.

Paleta Goman, Saioa Aristorenak eta Iera Agirrek bihar jokatuko dute Iruñean, 16:00etan hasiko den jaialdiaren baitan.

Frontoi motzean

Etzi, hilak 21, jokatuko da Urretxuko Ederrena pilotalekuan 2010eko Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sari Nagusiko ligaxkakako 3. eta azken jar-

dunaldia. Pilota jaialdia 11:00etan hasiko da eta bi partida jokatuko dira.

Urkizu-Montesek Etchelecu-Arozena edukiko dituzte aurrean lehen lehia. Urkizu berastegierra da eta Arozena berriz lizartarra. Partida honetako garaileak finalerdietarako txartela lortuko du.

Hauen ondoren, Espinar-Bordagaray bikoteak Elgezabal-Ruiz de Larramendiren aurka jokatuko dute.



Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Txapelketa finalerdien atarian aurkitzen da. HITZA

Lapurdira mendi irteera antolatu dute hilaren 28an, igandean

Ibarra » Herriko plazatik 08:00etan irtengo dira eta bi ibilaldi mota antolatu dituzte: luzea eta haurrekin egiteko modukoa.

ERREDAKZIOA

Geurea Ikurrina! lelopean, Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak, Lapurdira ibilaldia antolatu dute hilaren 28an.

Oraingoan Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako kobak ikusiko dituzte. Beti bezala, adin guztietako jendea elkartuko da, eta «giro ezin hobez gozatu ahal izango dute» antolatzaileen esanetan. «Inorkanpoan gera ez dadin», bi ibilaldi prestatuko dituzte, bata luze eta-



Ibartarren bigarren irteeran kilometroetara joan ziren mendiz. HITZA

goa, 4 ordu ingurukoa, eta bestea motzagoa, haurrekin joan nahi dutenentzat egokia.

Ibarrak plazan 08:00etan elkartuko dira. Zalantzak dituenak

eta informazio gehiago nahi duenak 652 71 58 00 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango du. Antolatzaileek azkenik, eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Savito Zaharra www.rezolasagardologia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozarena bidea, 14 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martxene pasalekua, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txerriokieta pasalekua

Gartziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5, Km. www.gartziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Otxaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Erelozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Osiaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urbil
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Arratzain zahar baserria Urbil
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Urbitate Tel.: 943 580 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zeran
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ibarregieta
Ibarnoz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagarra baserria (Goberu auzoa) www.zabalapadel.com info@zabala.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Iruñea
Mizka auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabaz auzoa, 8

DIEZ Autobusak

● Autobusak eta mikrobusak zerbitzu berria
 ● Metro eta tranvia zerbitzu berria
 ● Erretiroak, ikasketak, lasterkiak, enpresariak...
 Muntziola kalea, 24 | Tel.: 943 28 84 16 | Fax: 943 27 11 37 | 20012 DONOSTIA
 Posta elektronikoa: malola@autocaresdiez.net



GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Mendi irteera

■ **Tolosa.** Sunbilla-Etxalar (Nafarroa) mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 28rako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, 943 652789) edota mendi elkartearen webgunean: www.alpinouzturre.com.

Inauteriak

■ **Tolosa.** Piñata Igandea: Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa lurreamendi Egoitzara joango dira.

Hitzaldia

■ **Villabona.** Dependetzia legearen inguruko hitzaldia gaur, hilak 19, Udaleko balioanitzeko gelan 15:30ean. Sarrera liburutegitik izango da. Solidaridad Intergeneracional eta EHNEK antolatuta dute hitzaldia.

■ **Berastegi.** Kiropraktikaren mundua hitzaldia gaur, hilak 19, 19:00etan eskolako ganbaran. Kiropraktikan doktorea den Ana Echevestek eskainiko du hitzaldia.

Zinema

■ **Tolosa.** Fama filma Leidor aretoan gaur, hilak 19, 22:30ean eta igandean 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin, Jose Irola, 10. 943 67 24 38.
■ **Betelu.** Carrillo Ruiz, Angeles Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Barrakak oraindik zabalik daude

TOLOSA ■ Inauteriak asteartean edo asteazkenean amaitu zituzten gehienek. Geltoki ondoan aurkitzen diren barrakak ordea, oraindik zabalik daude. Atrakzioetako langileak lanean jarraituko dute igandera bitarte. Orduan amaituko dira eurentzat Tolosako Inauteriak. Atzo arratsaldean hainbat haur eta heldu gerturatu ziren barraketa, azken bidai txartelak erabiltzeko asmoz. Gaztetxoek topaleku ere bilakatu da Geltoki ondoko plaza egun hauetan; kotxe gainera igo eta talka eta talka dabilta elkarren artean. Txurroak eta antzekoak erosi nahi dituenari berriz, hiru egun gelditzen zaizkio. Igandetik aurrera trasteak hartu eta denboraldi berriari ekingo diote barraketa langileek han edo hemen. A. I.

A Agurrak



Zorionak!

Jose Manuel (Lizartza). Atzoko partez muxu handi bat Eñauten eta Leireren partez.



Urte Askoan!

Eider Calahorra Murua (Tolosa). Gaur 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZ Aren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZ Aren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Labo2010TABAKALERA

Film labur esperimentalak


Clermont-Ferrand Nazioarteko Zinemaldia
otsailak 23-27

Proiektzioak: 20:00
Mahai ingurua: Otsailak 27, larunbata, 18:00
Sarrera doan
Eserietu kopuru mugatua

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



TABAKALERA

Daxos de Mandas, 52
Donostia-San Sebastián
www.tabakalera.es